

ABEND-IZTI'aren ERAKUSKETA ARTETA ERRIAN

Laxaga Jaunak esan eustan, Nafarroan dan Arteta errira, Ullibarrena'tar Joxe ikustera joan-bear gendula idatz-lan bat egiteko; berak "Diario de Nabarra"n argitarateko, eta nik ZER'en. Emen daukazu, gure ardurazko ekintza, gozatu dagizun.

Arteta erri-txiki polit-bat da, Aundimendi-pean, 011o ibarrean kokatuta dagoana. Iparraldetik: Treku'en mendi-kateak eta San Esteban baselizak mugatuta; Egoaldetik: Arteta mendatea eta 011o ibaia; Mendebal edo Sartaldetik, 011o, Lizarbe, Saldise eta Ultzurrun erritxoak; eta Sortalde edo Eguzki-aldetik, Txargain mendiak eta Goñi erritxoak inguratzen dabe.

Eldu giñanean, ots-dei bat egin gendun, eta barrutik aupa-ots bategaz erantzun eban Joxe'k.

Kanpoan eta etxe-bar'uko tresneri guztiak erakutsi-ostean. Laxaga bere zerrendatik itanduten asi jakon:

—Izen-abizenak eta noz jaiō zintzan?:

—Ullibarrena eta Arellano tar Joxe, 1925' n urtean jaiotakua naiz!

—Non egin zenduzan ikasketak?

—Anai-arteko guda aurrera joiāla, 12 urtekoa, Iruñara joan nintzan, Udalak euki eban

nintzan, eta bost urte geroago gorputz-irudiak (esculturas) eta tresneri zaarrak erosten alegindu nintzan. 25 urtekoa Paris'era joan nintzan, arte-ederrak lau urtetan ikastera.

—Zenbat tresneri-zaar eukiko dozuz gaur bertan?

—15.600'en bat!

Zertarako erosi zendun ainbeste?:

—Euskal astarnen billa ibili nintzalako!

Zein da daukazun tresnarik zaarrena?:

Txakur antzeko arri bat, ainbat milla-mende daukazena. Erze'n. Arnedillo eta Arnedo ren erdian kokatuta dauan errian aurkitu neban; eta burdinezkoetan, lurra-lantzeko tresna zaar bat, erromatarrak agertu aurrekoa, millaka urteak daukazana. 2.000 pezeta ordaindu neban beragaitik, 27 urte neukazala.

—Euskera landu-zendun?:

Bai!, 1956'an Estornes Lasa'tar Joxe'rekin ibili nintzan, eta orduan konturatu be, Euskal-Izkuntzan nolako nortasuna dauken Euskalerrian daukaguzan abereak.

—Zein da zurentzat abestirik ederrena?:

—"Coplas de Monte Agudo".

—Baiña ori erderaz da!

—Gu gera ala ez gera? Gera!! eta kitto! !

—Norentzat izango da daukazun tresneri guztia?:

— "Nafarroako Don Pedro Mariskala iraspene rako (fundación) izango dira zati batzuk, eta besteekin, semeak jakingo dau zer egin.

Erakusketarik egin dozu?:

—Bai!, Donostin egin neban 1969'an, eta egin neban zabalkunde motagaitik, iru egunerako espetxeratua izan nintzan. Gazteiz'en be egin nuen 1972'an, "Casa del Cordon" deritxonean eta debekatua izan zan.

—Nor da zurentzat Naparrrik ospatsuenetarikoa bat?:

—Niretzat, Euskal-Basarretxeok..., bardiñ-bardiñak gara (ez dau esan-gura flor). Euskarok, danok bardiñak gara, lengo-lez! Euskarok bai!! baskoz no!!

Bere erantzun bizi-bizia izan-zan au.

—Zein jazokizun izan da Euskalerrian zuretzat aipagarriena azkeneko denboretan?:

—Euskalerrian, asko izan dira aipagarriak, baiña niretzat Nafarroan "Gamazada".

—Gaztedi artean zer ikusten dozu?:

Gazteak jatorrak dira!, baiña diruak zapalduta.

—Zergaitik erosi zendun etxe-au?:

"Zortzi zuta-be daukazelako orma-nagusi barik".

Erri ontan Euskara noz galdu da?:

1951'ean il-zan azkeneko Euskalduna. Baiña..... Bizkaitarrak, Giputzak, Arabarrak, Nafarrak, Benafarrak, Laburdiko eta Zuberoarrak ez gara?, ba gera!, Euskarok gera eta kitto! !

Berriz ere, bere biotzaren erantzun zuzena.

Itaun eta solaseko mintzaldi ostean, ainbat zabalkunde-orri emon euskun eta, batez be, berak argitaratutako liburu bat "Iruñako Erreñuaren abend-izti Erakusketa" Julibarrenak izenpetzen dauana.

Liburutxoa zabalduta, erakutsi euskun, zer esaten dauan Sanchez Albornoz'ek Euskara dala-ta: Gaztelar lurraldean, Bureba'ko Bibar'en ain zuzen, Euskaldunak izan zirela, eta Cid Campeador be Euskalduna izan zala.

Badaukagu bai, Euskalerrian zer ikusi eta gazteari zer irakatsi gure lurralde ontan, solaseko osteraldi alai bitarteekin, Euskal zaletasuna bizkortzeko eta giza-barrena osatzeko.

Arteta'ko Julibarrena'k, besoak zabalik eta pozik artuko ditu joaten diran guztiak.

2000' an otsailla'ren 14' an

ATUTXA'tar PAUL

ZORNOTZAN 2.000'ko OTSAILL'ren 18'an